

**KIROL EGOKITUAREN EUSKAL  
FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE  
ARAUTEGIA**

**Xedapen orokorrak**

**1. Artikulua** Arautegi honek Batzar Nagusiak onartutako erregimena eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Lehendakari jaun/andrearen nahiz Zuzendaritza Batzordearen hautaketa arautuko ditu.

Honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, Euskal Herriko Kirolaren Legean; Euskal Herriko Kirol Federaziotako urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan hala nola hauteskunde arloan honen garapenean zehar ebazten diren xedapen publiko guztietan; eta Federazioaren Estatutuetan xedatutakoa jarraituko da. Halaber modu osagarrian aplikatu ahal izango da Administrazio Prozeduraren arautegi nagusian eta Euskal Herrian indarrean dagoen hauteskunde erregimenaren arautegi berezi nahiz orokorrean xedatutakoa.

**2. Artikulua** Hauteskundeak lau urtez behin ospatuko dira, udako Joko Olinpikoen ospakizun urteekin batera. Edozein kasutan unea eta epea eskumeneko Administrazio publikoak horretarako finkatutakoa izango da.

**3. Artikulua** Botoak izaera libre, zuzena, berdina eta sekretua izango du.

**4. Artikulua** Hauteskunde Erroldaren barne dauden datuen tratamenduak eta erakusketa publikoak, hala nola hauteskunde prozesuan zehar lortutako datu guztiek, helburu eksklusiboa izango dute, alegia, sufragio eskubidearen jarduera bermatzea eta ez da zilegi izango beste edonolako helbururako erabiltzea nahiz ematea. Edozein kasutan, datuen babeserako arloan indarrean dagoen eskumeneko legean aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da.

**REGLAMENTO ELECTORAL DE LA  
FEDERACIÓN VASCA DE DEPORTE  
ADAPTADO**

**Disposiciones generales**

**Artículo 1.** El presente Reglamento regula el régimen de conformación de la Asamblea General y la elección del Presidente o Presidenta y Junta Directiva de la Federación Vasca de Deporte Adaptado.

En todo lo no previsto en el mismo se estará a lo dispuesto en la Ley del Deporte del País Vasco; en el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, así como en todas las disposiciones públicas que se dicten en desarrollo de éste en material electoral; y en los Estatutos de la Federación. Además supletoriamente será de aplicación lo dispuesto en la regulación general del Procedimiento Administrativo y en la regulación especial y general del régimen electoral vigente en el País Vasco.

**Artículo 2.** Las elecciones tendrán lugar cada cuatro años, coincidiendo con los años de celebración de los Juegos Olímpicos de verano. En todo caso el momento y periodo será el fijado para ello por la Administración pública competente.

**Artículo 3.** El voto tendrá carácter libre, directo, igual y secreto.

**Artículo 4.** El tratamiento y exposición pública de datos contenidos en el Censo Electoral, así como todos los datos obtenidos durante el proceso electoral, tendrán como exclusiva finalidad garantizar el ejercicio del derecho de sufragio, no siendo posible su utilización ni cesión para ninguna otra finalidad. En todo caso, será de aplicación lo previsto en la ley competente y vigente en materia de protección de datos.

## Hauteskundeen deialdia

**5. Artikulua** Kirol Egokituaren hiru lurralde Federaziotako hauteskunde prozesuak amaitutakoan, Kirol Egokituaren Euskal Federazioko Lehendakari jaun/andreak hauteskunde prozesuaren izapideak martxan jarriko ditu. Halaber, lurraldeko federazio batek bere hauteskunde prozesua urriaren 31 baino lehen amaituko ez balu, Kirol Egokituaren Euskal Federazioak bere hauteskunde-prozesua abiarazi ahal izango du, urte olinpiko bakoitzeko azaroaren 1ean. Deialdia hitzartu ondoren, jendaurrean jarriko da ikusgai Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren lokaletan, eta ezagutzera emango zaie federatuei.

**6. Artikulua** Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren jarduneko Lehendakari jaun/andreak, gehieneko hilabeteko epean, Hauteskunde Batzordearen bilerarako deialdia luzatuko du dagokion hauteskunde prozesua martxan jarri dadin. Epe hori pasatakoan Hauteskunde Batzordearen deialdia egin ez bada, Federazioaren Batzar Nagusiko kide guztien artetik gutxienez % 5a ordezkatzeko duen edonolako kideren kolektiboak Hauteskunde Batzordearen bilerarako deialdia egin ahal izango du.

## Batzordearen eraketa

**7. Artikulua** Hauteskunde Batzordeak hiru lurralde Federazio bakoitzeko Estamentu bakoitzari Euskal Federazioaren Batzordean dagozkion ordezkarien kopurua esleituko dio, Lurralde Estamentu bakoitzeko lizentzien eta guztien kopuruarekiko modu proportzionalean. Euskal Federazioaren Errolda hiru lurralde Federaziotako Errolda guztien batura izango litzateke.

Kirol Egokituaren Euskal Federazioko Batzar Nagusia 30 ordezkariak osatuko

## Convocatoria de elecciones

**Artículo 5.** Finalizados los procesos electorales de las tres Federaciones territoriales de deporte adaptado, el Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Deporte Adaptado iniciará los trámites del proceso electoral. Igualmente si una Federación Territorial no finalizase su proceso electoral antes del 31 de octubre, la Federación Vasca de Deporte Adaptado podrá iniciar su proceso electoral, el 1 de noviembre de cada año olímpico.

Acordada la convocatoria, quedará públicamente expuesta la misma en los locales de la Federación Vasca de Deporte Adaptado, y se difundirá entre sus federados/as.

**Artículo 6.** El Presidente o Presidenta en funciones de la Federación Vasca de Deporte Adaptado deberá convocar, en el plazo máximo de un mes, una reunión de la Junta Electoral para que se dé inicio al correspondiente proceso electoral. Si transcurrido dicho plazo no hubiere procedido a la convocatoria de la Junta Electoral, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General de la Federación, que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar la reunión de la Junta Electoral.

## Constitución de la Asamblea

**Artículo 7.** La Junta Electoral atribuirá a cada Estamento de cada una de las tres Federaciones territoriales el número de representantes que les corresponde en la Asamblea de la Federación Vasca, en proporción al número de licencias de cada Estamento territorial y total. El Censo de la Federación Vasca está compuesto por los y las personas físicas y jurídicas integrantes de las asambleas generales de las federaciones territoriales. La condición de asambleísta la ostentará la persona jurídica y no la física que actúa como su representante.

La Asamblea General de la Federación Vasca de Deporte Adaptado estará

dute. Zehazki Batzordea horrela osatuta egongo da:

- A) Batzordeko kide guztien 80% litzatekeen ordezkariak Kirol Klub eta Elkarteen Estamenturako.
- B) Batzordeko kide eta boto guztien 10% ordezkariak Kirolarien Estamentuarentzako izango da.
- C) Guztiaren 5% ordezkariak Teknikari jaun/andreen Estamentuarentzat izango da.
- D) Guztiaren 5% ordezkariak Epaile jaun/andreen Estamenturako izango da.

**8. Artikulua.** Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du zein diren Batzar Orokor barruan plaza hutsak betetzeko irizpideak, eta ordezkoen sistemari emango dio lehentasuna. Ordezkoen bitartez plaza huts guztiak betetzen ez badira, hauteskunde partzialak egingo dira. Hauteskunde horiek egin ahal izateko, bi urte igaro beharko dira agintaldiaren hasieratik; eta horiek izango dira agintaldiko lau urteetan egin ahal izango diren bakarrak.

**9. Artikulua** Ordezkarien esleipena lurralde Federazio bakoitzari jakinaraziko zaio eta Euskal Federazioaren iragarki-taulan nahiz hiru lurralde Federazioetako iragarki-taulan erakutsiko da.

**10. Artikulua** Lurralde Federazioetako Batzordeek bere kideak esleitzeko bozketak ospatuko dituzte, hauek halaber Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Batzordekoak izango dira bere Hauteskunde Batzordeak hitzartutakoaren arabera.

**11. Artikulua** Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Batzordeko kideak izateko hautatutako lurralde batzordetako ordezkariak ezinbestean lurralde Batzordeko kideak izan beharko dira. Euskal Federazioak klubei eta kirol-elkarteei eskatuko dien lizentzia-kopurua ez da inoiz izango lurralde-federazioetako kide izateko eskatzen

integrada por 30 miembros. En concreto la Asamblea estará integrada por:

- A) Una representación para el Estamento de Clubes y Agrupaciones deportivas del 80% del total de miembros de la Asamblea.
- B) Una representación del 10% del total de miembros y votos de la Asamblea corresponderá al Estamento de Deportistas.
- C) Una representación del 5% del total corresponderá al Estamento de Técnicos y Técnicas.
- D) Una representación del 5% del total corresponderá al Estamento de Jueces y Juezas.

**Artículo 8.** La Junta Electoral determinará los criterios de cobertura de vacantes dentro de la Asamblea General, dando prioridad al sistema de suplentes. Si la cobertura de vacantes mediante suplentes resulta insuficiente se realizarán elecciones parciales. Dicha elección parcial, que será única dentro de los cuatro años de mandato, tan solo se podrá realizar transcurridos dos años desde el inicio del mismo.

**Artículo 9.** La atribución de representantes se notificará a cada Federación territorial y se expondrá en el tablón de anuncios de la Federación Vasca y en los tabloneros de anuncios de las tres Federaciones territoriales.

**Artículo 10.** Las Asambleas de las Federaciones territoriales celebrarán sus votaciones para la designación de los miembros de la misma que lo serán de la Asamblea de la Federación Vasca de Deporte Adaptado en conformidad con lo acordado por la Junta Electoral de ésta.

**Artículo 11.** Los representantes de las Asambleas territoriales elegidos para ser miembros de la Asamblea de la Federación Vasca de Deporte Adaptado deberán ser necesariamente miembros de la Asamblea territorial. La federación vasca no exigirá a los clubes y agrupaciones deportivas un número de licencias superior al exigido para formar

den lizentzia-kopurua baino handiagoa.

parte de las federaciones territoriales.

**12. Artikulua** Lurralde Federazioek dagozkion Batzordeek hitzartutako esleipenak jakinarazten dituztenean, Hauteskunde Batzordeak Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren batzordea eratzeari ekingo dio.

**Artículo 12.** Una vez que comuniquen las Federaciones territoriales las designaciones acordadas por sus respectivas Asambleas la Junta Electoral procederá a conformar la Asamblea de la Federación Vasca de Deporte Adaptado.

### Hauteskunde Batzordea

### Junta Electoral

**13. Artikulua** Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Hauteskunde Batzordea hauteskunde prozesua sustatzeko eta bere garapen egokia zaintzeko arduraduna izango da.

**Artículo 13.** La Junta Electoral de la Federación Vasca de Deporte Adaptado será el órgano colegiado encargado de impulsar el proceso electoral y de velar por su correcto desarrollo.

**14. Artikulua.** Hauteskunde Batzordea kide bakar batek osatzen du, eta, horrez gain, ordezeko bat egongo edo aukeratuko da. Aukeratutako pertsonak kargua onartu beharko du. Hauteskunde Batzordeko kidea lau urtez arituko da kargu horretan; hori gorabehera, Batzar Orokorrak edo Kirol Administrazioak kargua kendu ahal izango die kideei, eta beste batzuk hautatu ahal izango ditu agintaldia amaitu aurretik. Botatako edo kargutik kendutako Hauteskunde Batzordeak jardunean jarraituko du, batzorde berria izendatu arte.

**Artículo 14.** La Junta Electoral la compone un sólo miembro, existiendo o siendo igualmente elegido un suplente. La persona elegida deberá aceptar el cargo. La duración del ejercicio de miembro de la Junta Electoral será de cuatro años, sin perjuicio de la que la Asamblea General o la Administración Deportiva puedan destituir a sus miembros y nombrar a otros antes de la finalización del mandato. La Junta Electoral cesada o destituida actuará en funciones hasta la designación de una nueva.

**15. Artikulua** Hauteskunde Batzordearen funtzioak dira ondorengoak:

**Artículo 15.** Son funciones de la Junta Electoral las siguientes:

- A) Hautesleen Errolda eta Hauteskunde Egutegia onartzea.
- B) Aurkeztutako kandidaturak onartzea, aldarrikatzea eta argitaratzea.
- C) Hauteskunde Mahaia esleitzea.
- D) Aurkezten diren aurkaratzeak, erreklamazioak ala eskaerak ebaztea;
- E) Hauteskunde Mahaiak hartutako erabakien aurka jartzen diren errekursoak ebaztea.
- F) Hauteskunde aginduak interpretatzea eta hauteman ahal diren arautegiko hutsuneak zuzentzea.
- G) Boto-txartel, gutun-azal, kandidatetarako inprimaki eta

- A) Aprobar el Censo electoral y el Calendario electoral.
- B) Admitir, proclamar y publicar las candidaturas presentadas.
- C) Designar la Mesa Electoral.
- D) Resolver las impugnaciones, reclamaciones
- E) y peticiones que se presenten; así como resolver los recursos que se interpongan contra las decisiones de la Mesa Electoral.
- F) Interpretar los preceptos electorales y suplir las lagunas normativas que se puedan detectar.
- G) Aprobar los modelos oficiales de papeletas de voto, sobres, impresos para las candidaturas y demás documentos análogos.

gainerako dokumentu analogoen eredu ofizialak onartzea.

- H) Hauteskunde jarduerak federazioaren gizarte egoitza ez den beste toki batean egin ahal izatea baimentzea.
- I) Adierazten diren kontsultak ebaztea.
- J) Diziplinazko Epailea diziplinazko arau-haustea eratu ahal izango luketen hauteskunde prozesuarekin lotutako jarduera haiez informatzea.
- K) Hautatutako kandidatuak aldarrikatzea.
- L) Hauteskundeen ospakizuna eta honen emaitzak zuzenean eragingo lituzkeen edonolako auzi.

**16. Artikulua** Hauteskunde Batzordearen hitzarmenak pertsona interesdunen jakinaren gainean jarriko dira eta Federazioaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Hauteskunde Batzordeak egiten dituen hitzarmenak Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean, baliodun bi eguneko epean, eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean, zazpi egun naturalen epean, errekurritu ahal izango dira. Saio bakoitzaren akta altxatuko da eta Hauteskunde Batzordearen kide guztien aldetik sinatuta egon beharko da.

### Hauteskunde Mahaia

**17. Artikulua** Hauteskunde Batzordeak, kandidatuak izango ez diren pertsona fisikoak lirartekeen hautesleen arteko zozketaren bidez, hiru kiderekin osatutako Hauteskunde Mahaia esleituko du, baita ordezkoen kopuru berdina ere, bere Lehendakari jaun/andrea eta Idazkari jaun/andrea Hauteskunde Batzordeak espresuki hala esleitzen dituen haiek izanik; esleipen hori gauzatzeko ez denean, Lehendakari jaun/andrea kiderik helduena izango da eta Idazkari jaun/andrea, kiderik gazteena.

Hautatua izan den pertsona juridikoak izendatzen duen pertsona fisikoak aukera izango du kide izateko. Pertsona

H) Autorizar la realización de los actos electorales en lugares diferentes a la sede social de la federación.

I) Resolver las consultas que se le formulen.

J) Informar al comité disciplinario correspondiente sobre aquellos hechos relacionados con el proceso electoral que pudieran ser constitutivos de infracción disciplinaria.

K) Proclamar las candidaturas electas.

L) Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.

**Artículo 16.** Los acuerdos de la Junta Electoral se notificarán a las personas interesadas y serán publicados en el tablón de anuncios de la Federación. Los acuerdos que adopte la Junta Electoral serán recurribles en primera instancia ante la propia Junta Electoral en el plazo de 2 hábiles. Las resoluciones de dichos recursos serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete días hábiles.

De cada sesión se levantará acta y deberá estar firmada por todos los miembros de la Junta Electoral.

### Mesa Electoral

**Artículo 17.** La Junta Electoral, mediante sorteo entre los electores personas físicas o jurídicas que no vayan a ser candidatos, designará una Mesa Electoral compuesta por tres miembros, así como un número igual de suplentes, siendo su Presidente o Presidenta y Secretario o Secretaria aquellos que así se designe expresamente por la Junta Electoral o, en caso de no procederse a dicha designación, el Presidente o Presidente lo será el o la de mayor edad y el Secretario o Secretaria el o la de menor edad.

Podrá ser miembro, la persona física designada por la persona jurídica que haya sido elegida. La persona física no

juridikoak ezin izango du pertsona fisikoa ordezkatu bere agintaldi guztian.

podrá ser sustituida por la persona jurídica durante todo su mandato.

Hauteskunde Mahaia Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren helbidean eratuko da.

La Mesa Electoral se constituirá en el domicilio de la Federación Vasca de Deporte Adaptado.

Hauteskunde Mahaia eratu ahal izateko, gutxienez, mahaiko kideen erdia eta lagun bat gehiago bertaratuko da ezinbestez.

Para constituirse la Mesa Electoral será necesaria la presencia de al menos la mitad más uno de sus miembros.

Hauteskunde Mahaiaren hitzarmenak gehiengo sinpleak egingo ditu eta berdinketaren kasuan Lehendakari jaun/andreaken botoa nagusituko da. Behar bezala motibatutako aurkako botoei dagokionez, hala eman izango lukeen hura erantzukizunetik libre utziko lukete.

Los acuerdos y decisiones de la Mesa Electoral serán adoptados por mayoría simple y en caso de empate prevalecerá el voto del Presidente o Presidenta. Los votos contrarios debidamente motivados eximirán de responsabilidad a quien así lo hubiera emitido.

Hauteskunde Mahaiaren erabakiak interesdunen jakinaren gainean jarriko dira eta Federazioko iragarki-taulan erakutsiko dira.

Las decisiones de la Mesa Electoral serán notificadas a los interesados y serán expuestas en el tablón de anuncios de la Federación.

Hauteskunde Mahaiaren erabakiak Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira baliodun bi eguneko epean.

Las decisiones de la Mesa Electoral serán impugnables ante la Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.

Hauteskunde Batzordeak Hauteskunde Mahaiaren errekurtsio edo aurka egitearen inguruan ematen duen ebazpena Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango da zazpi egun balioduneko epean.

La resolución que adopte la Junta Electoral sobre el recurso o impugnación del acuerdo de la Mesa Electoral será recurrible ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de 7 días hábiles.

**18. Artikulua.** Kandidatuek kontuhartzaileak izendatu ahal izango dituzte Hauteskunde Mahaiaren aurrean. Beren zeregina bozketa eta botoen zenbaketa ikustera egongo da mugatuta; hauteskunde-ekintzari buruz adierazpenen bat egin nahi badute, edo bozketa eta botoen zenbaketari buruz erreklamazioren bat aurkeztu nahi badute, eskubidea izango dute hori guztia dagokion aktan jasota gera dadin.

**Artículo 18.** Los candidatos podrán designar interventores ante la Mesa Electoral. Su función se limitará a presenciar el acto de votación y del escrutinio, con derecho a que se recojan en el acta correspondiente las manifestaciones que desee formular sobre el desarrollo del acto electoral, así como las reclamaciones referentes a la votación y escrutinio.

**19. Artikulua** Hauteskunde Mahaiaren funtzioak izango dira:

**Artículo 19.** Son funciones de la Mesa Electoral:

- A) Bozketen garapen zuzena zaintzea.
- B) Boto emaileen nortasuna eta bere hautesleen egoera egiaztatzea.
- C) Emandako botoen baliagarritasuna ebaztea.
- D) Botoen zenbaketa egitea, hauek ematen amaitzen denean.
- E) Bozketaren inguruko beste edonolako auzi ebaztea.

- A) Velar por el correcto desarrollo de las votaciones.
- B) Comprobar la identidad de los y de las votantes y su condición de electores o electoras.
- C) Resolver sobre la validez de los votos emitidos.
- D) Efectuar el recuento de votos, una vez terminada la emisión de los mismos.
- E) Resolver cualquier otro asunto relativo a la votación.

**20. Artikulua** Hauteskunde Mahaiaren idazkari jaun/andreak Akta idatziko du zeinetan bertaratutako hautesle ala boto emaileen kopurua, bozketan zehar jazotako gertaerak, adierazten diren erreklamazioak, honen ondorioz, emandako boto baliiodunak, boto nuluak eta boto zuriak erlazionatuko baitira.

**Artículo 20.** El Secretario o Secretaria de la Mesa Electoral redactará el Acta en la que se relacionará el número de electores asistentes o votantes, incidencias ocurridas durante la votación, reclamaciones que se formulen, como consecuencia de la misma, votos válidos emitidos, votos nulos y votos en blanco.

Akta Lehendakari jaun/andreak, Idazkari jaun/andreak eta bokalak sinatuko dute eta boto nuluekin nahiz errekurritzen direnekin batera berehala Hauteskunde Batzordera bidaliko dira.

El acta será firmada por el Presidente o Presidenta, el Secretario o Secretaria y el vocal, remitiéndose inmediatamente a la Junta Electoral juntamente con los votos nulos o los que se impugnen.

Uneko hauteskunde-prozesuan hautagaitzaren batean sartuta daudenek ezin izango dute inola ere esku hartu Hauteskunde Batzordean, ez eta Hauteskunde Mahaian ere. Bateraiezintasun hori zehazteko, hautagaitza osatzeko borondatea adierazten den eguna hartuko da aintzat; hori argi agertzen da hautagaien onarpenean bertan, eta, beraz, ez dago izendapena egiten den unera arte itxaron behar.

En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral, quienes formen parte de alguna candidatura en el proceso electoral en curso. Para determinar esa incompatibilidad habrá de estarse a la fecha en la que se exterioriza la voluntad de integrar una candidatura, lo que se manifiesta con la aceptación de los candidatos que incluya, sin que haya que esperar a la proclamación.

### **Lehendakari jaun/andrea eta Zuzendaritza Batzordea hautatzea**

### **Elección de Presidente o Presidenta y de la Junta Directiva**

**21. Artikulua** Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren lehendakari jaun/andrea Federazio honetako Batzordeko kidea ala pertsona juridikoa izango den kide baten ordezkari bezala jardun beharko da. Kirol egokituaren Euskal Federazioaren Lehendakaritza bateraezina izango da Klub ala kirol Elkarte bateko Lehendakaritzarekin edo Federazioaren Batzordeko kidea izaten

**Artículo 21.** El Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Deporte Adaptado deberá ser miembro de la Asamblea de esta Federación o actuar como representante de un miembro que sea persona jurídica. La representación de las personas jurídicas la ostentará el Presidente o Presidenta de la misma o aquella persona que acredite fehacientemente la representación

den beste edozein pertsona juridikorekin. Lehendakari jaun/andre bezala hautatua izaten denean, kargu hura utzi egin beharko du eta Federazioaren lehendakari jaun/andrearena soilik mantendu beharko du.

Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Lehendakaritza, halaber, bateraezina da Klub nahiz Elkarte baten ordezkariarekin edota Federazioaren lizentziarekin kontatzen duen beste edonolako erakunde ala pertsona juridikorekin. Lehendakaritza pertsona juridikoaren ordezkariarengan suertatuko balitz, honek ordezkaritza horren kargua utzi egin beharko luke.

**22. Artikulua** Lehendakaritzako kandidatura beti idatziz aurkeztu beharko da, kargua eskuratu nahiko luketenen izena eta abizenak, NAN eta lizentzia adieraziaz. Horrez gain, argi jaso beharko da hautagaitzako zein postu edo zereginetara aurkezten diren; hori zehaztu ezean, lehendakaritzara zerrendaburua aurkezten dela joko da. Halaber atxikiko da, bere kasuan, Batzordeko pertsona juridiko baten ordezkaria dela bermatuko duen dokumentazioa.

**23. Artikulua** Kandidaturak aurkeztutakoan, zapi eguneko epean, Hauteskunde Batzordeak bere onargarritasunaren inguruan ebatziko du.

### **Batzordearen Garapena**

**24. Artikulua** Batzordearen deialdia Hauteskunde Batzordeak egingo du Hauteskunde Batzordean finkatutako dataren arabera, ondorengo Gai-Zerrendarekin:

1. Batzordearen eraketa.
2. Hauteskunde Mahaiaren eraketa.
3. Lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketa.

mediante una Certificación expedida por el Secretario o Secretaria del Club o Agrupación deportiva, con el Visto Bueno de la Presidenta o Presidente.

La Presidencia de la Federación Vasca de Deporte Adaptado es incompatible con la Presidencia de un Club, Agrupación deportiva o cualquier otra persona jurídica que sea miembro de la Asamblea de la Federación. En caso de ser elegido o elegida Presidente o Presidenta deberá dimitir de aquél cargo y mantener únicamente el de Presidente o Presidenta de la Federación.

**Artículo 22.** La candidatura a la Presidencia y Junta Directiva deberá presentarse siempre por escrito, con expresión del nombre y apellidos, DNI y licencia de todas y cada una de las personas que optan al cargo; además deberá hacerse constar a que puesto o función se presentan dentro de la candidatura, en caso de no especificarse nada se entenderá que la persona que encabeza la lista es la persona que se presenta a la presidencia. También se adjuntará, en su caso, documentación acreditativa de ser el representante de un miembro persona jurídica en la Asamblea.

**Artículo 23.** Presentadas las candidaturas, en el plazo de siete días la Junta Electoral resolverá sobre su admisibilidad.

### **Desarrollo de la Asamblea**

**Artículo 24.** La Asamblea se convocará por la Junta Electoral en la fecha fijada en el Calendario Electoral, con el siguiente Orden del Día:

1. Constitución de la Asamblea.
2. Constitución de la Mesa Electoral.
3. Elección de Presidente y de La Junta Directiva.



Batzarra balio osoz eratuta gera dadin, lehenengo deialdian kide gehienek bertaratu beharko dute; eta, bigarren deialdian, berriz, aski izango da kideren bat bertaratzea, kopurua gorabehera.

**25. Artikulua** Batzordea biltzen denean, berehala Hauteskunde Mahaia eratuko da.

**26 Artikulua.** Ez da onartuko botoa beste norbaiten esku uztea, ez eta posta bidezko botoa ere. Halaber, klub edo kirol-elkarte bateko ordezkariak diren pertsona fisikoak ezin izango dira beste klub edo kirol-elkarte bateko ordezkari izan.

**27. Artikulua** Kandidatu bat bakarra balego Federazioaren Lehendakartzarako, bozketa beharrezkoa ez da izango eta Hauteskunde Batzordeak Lehendakari jaun/andrearen aldarrikatuari ekingo dio. Inolako kandidaturik ez balego, Hauteskunde Batzordeak epe berri bat ezarriko luke kandidaturak aurkezteko. Bigarren epe honetan halaber kandidaturarik aurkeztuko ez balitz, egoera hori jarduneko Lehendakaritza betetzen duenari jakinaraziko zaio, honek Ezohiko Batzar Nagusirako deialdia egin dezan zeinetan arrazoi horrek eraginiko Federazioaren desegitea eztabaidatuko baita.

**28. Artikulua** Batzordearen saioa hasitakoan, Lehendakari jaun/andre eta Zuzendaritza Batzordea aurkezteari hala nola horien hautaketari ekingo zaio.

Hautaketa balizko botoen gehiengo sinplearen arabera burutuko da, lortzen diren portzentajeen arabera.

Txartel bakoitzean zerrenda bateko kandidatu jaun/andreak bozkatu ahal izango dira. Berehala Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioko Lehendakari

La Asamblea quedará válidamente constituida en primera convocatoria si asisten la mayoría de sus miembros y en segunda convocatoria bastará la concurrencia de cualquier número de asistentes.

**Artículo 25.** Reunida la Asamblea, se constituirá inmediatamente la Mesa Electoral.

**Artículo 26.** No se admitirá la delegación de voto ni el voto por correo. Así mismo, ninguna persona física representante de un club o agrupación deportiva podrá ostentar la representación de otro club o agrupación deportiva.

**Artículo 27.** Si sólo hubiere una lista de candidatos se proclamará Presidente o Presidenta y Junta Directiva a quienes estén en la misma, sin realizarse ninguna votación.

Si no hubiere ninguna lista, la Junta Electoral procederá a fijar un nuevo plazo para la presentación de candidaturas. Si tampoco se presentaren candidaturas en este segundo plazo la Junta Electoral procederá a comunicar dicha situación a quien ejerza la Presidencia en funciones a fin de que se convoque una Asamblea General Extraordinaria en la que se debata la disolución de la Federación por dicha causa.

**Artículo 28.** Comenzada la sesión de la Asamblea, se procederá a la presentación de los candidatos a Presidente o Presidenta y Junta Directiva, y a su elección.

La elección de la candidatura se producirá por la mayoría simple de los votos válidos en función de los porcentajes resultantes.

En cada papeleta únicamente se podrá votar a los candidatos o candidatas de una lista. Se procederá inmediatamente al recuento de votos por la Mesa y se proclamará Presidente o Presidenta y

jaun/andrea nahiz Zuzendaritza Batzordea aldarrikatuko dira gehiengo lortu duen zerrendaren arabera.

Berdinketaren kasuan bozketa berri bati ekingo zaio. Berdinketak iraungo balu, hirugarren eta azkeneko bozketari ekingo litzaioke. Berrero kandidaturen berdinketa gertatuko balitz, Hauteskunde Batzordeak kandidatuen arteko zozketari ekingo lioke.

**29. Artikulua** Lehendakari jaun ala andrea eta Zuzendaritza Batzordea aldarrikatutakoan, hark Batzordearen eztabaidak zuzenduko lituzke, Hauteskunde Batzordearen aurrean hautaketaren inguruan aurkeztu ahal izango lirakeen erreklamazioei utzi gabe. Behin betiko izendapena egin ondoren, hautetsiak dagozkion zereginak bete ahal izango ditu, karguaz jabetzeko ekitaldi formala egin aurretik.

**30. Artikulua** Hogeita lau ordu iragandakoan Hauteskunde Mahaiak Hauteskunde Batzordeari Akta bidaliko dio; honek, hiru egunen buruan emaitzak argitaratuko ditu.

Emaitzak zazpi egun balioduneko epean errekurritu ahal izango dira Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean eta baita Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean ere, baliodun bi eguneko epean..

#### **Xedapen gehigarriak**

**Bakarra.** Agintaldian izan daitezkeen bajei dagokienez, Lurralde Batzarrean ordezkatzan dituztenak arituko dira haien ordezkariak.

Junta Directiva de la Federación Vasca de Deporte Adaptado a los integrantes de la lista que haya obtenido la mayoría.

En caso de empate se procederá a una nueva votación. Si persiste el empate resultarán elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres. Si de nuevo empataren las candidaturas la Junta Electoral procederá en el plazo máximo de siete días a efectuar un sorteo entre las candidaturas empatadas.

**Artículo 29.** Proclamado el nuevo Presidente o la nueva Presidenta y Junta Directiva, aquél o aquella pasará a dirigir los debates de la Asamblea, sin perjuicio de las reclamaciones que en relación con la elección puedan presentarse ante la Junta Electoral. Realizada la proclamación definitiva, el cargo electo podrá ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión.

**Artículo 30.** En el plazo de veinticuatro horas la Mesa Electoral remitirá el Acta a la Junta Electoral, la cual en tres días publicará los resultados.

Los resultados podrán ser recurridos o impugnados en el plazo de siete días hábiles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva y ante la propia Junta Electoral en el plazo de 2 días hábiles.

#### **Disposiciones adicionales**

**Única.** Las bajas que se causen durante el mandato serán sustituidas por quienes les sustituyan en la Asamblea territorial.

Itziar Páramo  
Idazkaritza/Secretaría

Porfirio Hernández  
Lehendakaritza/Presidencia